

# Abarrak

MIKEL ASURMENDI

## Pentsatu, ez sinestu!

*Errautsak: Le Petit Théâtre de Pain, Artedramak eta Dejabu.*

BELAUNALDI BATEN ERRAUTSAK eleekein iragarri ziguten obra, Luhuso herrian estreinatu zutenean; iragan azaroan. Areago, adierazi ziguten egin gabeko iraultzen hileta festa zela: sei pertsona eta hil-kutxa bat, Odei laguna barne. Iragan martxoan, Hendaiian eman zuten. Anartean, Donostiako Antzerki Saria jaso du *Errautsak* antzezlanak, eta jokalariek errautsak aireratzten segitzen dute herriz herri. Arrakasta handiz gainera.

Belaunaldi bakar baten errautsak baino, erran nezake, obra honetan zenbait belaunaldirenak haizatzen direla. Hirurogeigarren hamarkadako seme-alaba hauen gurasoek piztu zuten sua. Eta, belaunaldiz belaunaldi, errautsutako belaunaldi horren ondoren-goetan ezpaltzeko zuri ez ote den gelditu, erran nezake. Bego!

Sekula ez da berant. Greziarren Fenix Hegaztia antzo, euskaldunon Arrano Beltza berpiztu liteke errautsetatik. Fenixa bostehun urte bizi ondoren berpizten zen. Zer dira bizpahiru belaunaldi errautsurik Nafarroako Erresumaren gainbeheraz geroztik. Bego!

Guztiarekin ere, zorionak obra hau asmatu eta jokatzeko duzuenoi. Zorionekoak, jendarte kirrinkari baten erretratu zintzoa egin duzuelako. Nahaspilatutako jendarte konplexurik gabe agertzen duzuelako. Askotan –sarritan maiz ardura usu– elkar ententitzen ulertzen endelekatzen ez den euskaldungoa agertu duzuelako zinismorik gabe –edota zinismo handirekin–.

Hombre, ez dugu elkar aditzen. Bistan da, klaro eta noski.

Guztiarekin ere, konparazione eta berbarako, Hendaiako *Hendaitz* gazte taldearen “Pentsatu, ez sinestu!” lemaaren ildoan, beharbada gureak ez du oraindik egin –ez da guztiz errautsu– eta jai(ko) dira berriak. Agian antzinako Grezia Euskal Herria berri berri berpiztu liteke. Oxala! Obrak eta antzerkigile hauek –eta beste batzuek ere– merezi dute-eta. Odei eta bere lagunaren aurreko belaunaldiak kantatu zuen bezala: “Euskal Herria ez dago hilda, Euskal Herria bizi da” erraten dut, prefosta. ■



Odei lagunaren hiltzea da *Errautsak* antzezlanaren funtsa eta abiarburua.

# Atxaspi Hotela



*ametsetan bezala.*

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com